



**URDAIBAI RUGBY ESKOLA ELKARTEAK ETA GERNIKA-LUMOKO
UDALAK SINATURIKO HITZARMENA, UMEEI ETA GAZTETXOEI
BEGIRAKO "ASTEBURUAN EUSKERAZ" AISIALDIRAKO EGITASMOA
2014an GARATZEKO**



Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko abuztuan eta Udal Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, PATXI XABIER BARTOLOME jauna, adinekoa eta NAN zbk.18.601.501-K, Urdaibai Rugby Eskola Elkartearen izenean arituz (G-95161980).

Bestetik, JOSE MARIA GORROÑO ETXEBARRIETA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 211.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duelarik.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udaleko Gaztedia Zerbitzuak, Euskararekin elkarlanean zenbait ekintza antolatzen ditu, Euskararen erabilpenerako Udal Ordenantzan ezarritako xedeak oinarri. Horrekin lotuta, kultur etxearen menpeko gaztelekua dinamizatu beharra azpimarratzen da.

II

2001eko maiatzean sortu eta Eusko Jaurlaritzaren erregistroan AS/B/092226/2001 zenbakiarekin inskribatua izan zen Urdaibai Rugby Eskola Elkarteak (aurrerantzean "URE Elkarte"), urtean zehar aisialdirako ekitaldiei lotura bat



eman eta gaztetxoei zerbitzu iraunkor bat eskaini asmoz, egitasmo berezi bat eratu zuen asteburu eta oporraldietarako.

III

Arestikoak kontutan hartuta, URE Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak 2002an sinaturiko hitzarmena indarrean mantendu dute orain arte, URE Elkarteak dituen helburuekin bat eta bere jarduera hedatzen joan den neurrian urteroko hitzarmenean egokipenak eginik (kasurako, 2004an “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa jarri zuten martxan 13-16 urte bitarteko gaztetxoentzat Gaztedi Arloko dirukaguntzarekin eta hitzarmen honi atxiki zitzaion). Gaur egun, hitzarmenerako aitzakia den egitasmoak bi azpiegitasmo ditu: “Asteburuetako aisialdia” (8-12 urte bitartekoentzat) eta “Gaztelekuko zapatuak” (13-16 urte bitartekoentzat).

IV

Ure elkarteak, 2013ko urtarrilean aurkeztutako proposamenaren arabera, hitzarmenari eutsi gura dio hurrengo baldintzetan:

- “Asteburuetako euskaraz” (8-12 urte bitartekoentzat)
Programako diru-kopurua 7.160 Euro.
- “Gaztelekuko zapatuak” (13-16 urte bitartekoentzat)
Programarako diru-kopurua 5.950 Euro.

V

Kontuan hartuta euskararen normalizaziorako gaztetxoen astialdirako ekintzak sendotu eta zerbitzu horri iraunkortasuna eman beharra.

Kontuan hartuta egitasmo honen bitartez, gaztetxoak gizarteratzeko zerbitzu egokia abian jartzeko aukera egokia dela.



Kontuan hartuta Urdaibai Eskolak 2014ko abuztuan proposatutako egokipenak Gaztedi Arloko Zinegotziak aztertu dituela eta tajuzkotzat jo dituela, Gernika-Lumoko Udalak eta URE Elkarteak honako ELKARLANERAKO HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehena.- URE Elkarteak:

- a) Asteburuetako eta oporraldietarako 8-12 urte bitarteko gaztetxoek Aisialdia dinamizatu eta mantentzeko konpromisoa hartuko du.

- b) Lehenengo konpromiso horrekin lotuta, "Gaztelekuko zapatuak" deituriko egitasmoari ere ekingo dio 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta.

Bigarrena.- Aurreko klausularen atal bietan aipatutakoa gauzatzeko, URE Elkarteak irakaskuntza zentroekin zuzenean landuko ditu harremanak, garatuko diren ekintzen berri eskola-umeen artean hedatzeko eta inskripzio-fitxa baten bitartez nahi dutenekin zerrenda bat osatzeko, ostean harreman zuzena eskutitz pertsonalez izan dadin, horixe baita lokarrik sendoena eta inplikazioa lortzeko erarik egokiena.

Hirugarrena.- Ure Elkarteak, lehenengo klausulan aipatutako atalak hurrengo era honetara gauzatuko ditu:

- Eskola garaian (irailetik ekainerakoa), hilabeteko zikloetan antolaturik: kirolezko bi jarduera (rugbyarekin lotuta), kulturazko bat eta aisialdiko beste bat. Larunbatean zein igandeetan, edo bietan, eta, ekitaldiaren arabera, iraupena egun erdikoa edo egun osokoa izango da.

- Oporraldietan:
 - Gabonak.- Gabonetako kanpaina bost egunekoa izango da, tarte horretan ekintza desberdinak burutuz, hala nola, irteerak, eskulan tailerrak, zinemara irtenaldia, rugby jarduera, PIN-erako bidaia. Beti ere, Udalak antolatutakoarekin koordinatuko da guztia.

- Aste Santua.-Sasoi honetan lau eguneko kanpaina egingo da, eskema berdina izanik.
- Udaroa.- Asteburuetan ahalegin berezia eginda ere, Gaztedi Arlotik eta Kirol Erakundetik urtero bideratzen den “Udan zer egin” kanpaina dela eta, koordinazio berezia izango da honako hitzarmena sinatzen duten alderdi bien artean.

Lehenengo Klausulako b) ataleko “Gaztelekuko zapatuak” deituriko egitasmoa dela-eta, urte osoko 36 ekinaldi antolatuko dituzte zapatuetan, 34 zapatu arruntetan gehi beste bi jaialdi berezi oporren hasiera eta bukaerarako. Orduategia: 20:00etatik 00:00etara.

Laugarrena.-Gernika-Lumoko udaleko Euskara Zerbitzuarekin, Gaztedirako Ordezkaritzarekin eta Kultur Etxea Fundazioarekin bat jokatu du URE Elkarteak, astialdia eta euskararen normalizazioaren bidean helburu mailakatuak gauzatzearren eta ekintza zehatzekin koordinazioa lortzeko.

Bosgarrena.- URE Elkarteak, eskainiko dituen zerbitzu guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Udaleko Gaztedirako Ordezkaritzari hiruhilebeterik behin, urte bukaerarako azken txostena eta egindako gastuen zuriak egin behar izanik.

Seigarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, “Asteburuetako aisialdia” eta Gaztelekuko zapatuak” egitasmoarekiko eskainiko duen aholkularitza eta bere zerbitzu-baliabideen laguntza orokorretik aparte, konpromiso zehatza hartuko du hitzarmen honen helburuak betetzeko 2014ko aurrekontuan 13.110 euroko dirulaguntza aurreikusteko, jarraian aipatzen diren diru partidetan banatuta:

I.-Asteburuetako aisialdiari dagokionean:

- Lokalen mantenimendua (argia, ura, aseguruak, garbiketa.....2.100 euro
- Ekintzak burutzeko materialerako diru-partida.....1.000 euro
- Zazpi monitoreren lanengatik dirulaguntza.....4.060 euro

II.-“Gaztelekuko zapatuak” egitasmoari dagokionean, hona hemen aurrekontua:



- Egitarauaren araberako 31 ekintza egun x240 euro.....5.000 euro
- Oporren hasiera eta bukaerarako egun berezi bi x350..... 550 euro
- Kanpainarako kartelak eta zabalkundea..... 400 euro


Zazpigarrena.- Ure elkarteak, konpromisua hartzen du Kultur-Etxea Fundazio Publikoaren laguntzagaz antolatu diren monitore ikastaroetako ikasleei, praktikak beraien ekintzetan egiteko aukera ematea.

Zortzigarrena.- Diru-kopuru hori, honako hitzarmena Tokiko Gobernu Batzarrak behin onartuz gero, osorik ordainduko da, kontuan hartuta 2011ko zuriketa legeaz eginda dagoela eta egitasmoaren garapenari jarraipena egingo zaiola bosgarren klausuraren arabera.

Bederatzigarrena.-Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean eta, behin igaro ezker, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.

Eta adostunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA




Jose Maria Gorroño Etxebarrieta



Pablo Xabier Bartolomé

GAZTEDIRAKO
ORDEZKARITZA-BURUA



Leire Bidaguren Pujana

IDAZKARIA



Jon Goikopetxea Etxebarria